

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak Donejakuerako Frantses Bidea Gizateriaren Ondare izendatu izanaren urteurren bikoitzean parte hartu du

*Frantziarekin batera antolatutako ekitaldian, bi herrialdeen arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu da Bidearen inguruan lan egiteko*

Asteazkena, 2018.eko abenduak 5

Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik, Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusi Maitena Ezkutarirekin batera, Donejakuerako Espainiako Frantses Bidea Gizateriaren Ondare izendatu izanaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldian parte hartu du. Ekitaldia Frantziarekin batera ospatu da, Frantziako tartearen izendapenaren 20. urteurrenaren karietara.



Maria Ezkutariren parte-hartzea Donibane Garazin ospatutako ekitaldian.

Abenduaren 2an Donibane Garazin antolatutako jardunaldi honen helburua, denbora tarte honetan egindako lanaren balantzea egin eta bi herrialdeen artean Donejakue Bidearen inguruan lankidetzaz estuan jarduteko oinarriak finkatzea izan da. Konpromiso hau gauzatzeko, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Espainiako Donejakue Bideko Udalen Elkarteak (AMCS) eta Frantziako Donejakue Bideen Agentziak. Por parte de la AMCSen izenean, zuzendaritza batzordeko kide diren Lizarrako alkate Koldo Leozek eta Carrión de los Condes (Palentzia) herriko alkate Jose Manuel Oterok parte hartu dute, eta ACIR Compostelleren ordezkari gisa, erakunde honetako lehendakari John Palacinek.

Ayerdi lehendakariak, jardunaldiaren irekieran izandako agerraldian, argi utzi du "orain elkarrekin lan egin behar dugu batzen gaituenaren inguruan, izan ere, etorkizuna horretara iristeko dugun gaitasunarekin lotuta dago. Bide bakarra dago, eta tarte bat daukagu gutariko bakoitzak, baina bideak tarte guztiak elkartuz baizik ez du zentzurik hartzen". Ekitaldian, Ayerdirekin batera izan dira Grial Ibañez de la Peña, Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioko Autonomia-Erkidegoekiko Kultur Lankidetzarako zuzendariorde nagusia eta eta Donejakue Kontseiluko Batzorde Exekutiboko idazkaria; Sandrine Derville, Turismo gaiez arduratzen den Akitania Berriko lehendakariordea; Pascal Mailhos, Okzitaniako prefeta eta Frantziako prefecto de la région de Occitanie y del bien *Chemins de Saint-Jacques-de-Compostelle* erakundearen ondasun

arloko arduraduna, eta Alphonse Idiart, Donibane Garaziko auzapeza.

Bestetik, Maitenak Ezkutarik *Espainiako Donejakue Bideetako ondasunaren kudeaketaren erronkak* delako eztabaidan parte hartu du. Bideak zeharkatzen dituen beste lurraldeetako eragileekin batera, era askotako gaiak izan ditu hizpide; hala nola, Donejakue Bidearen iraunkortasyna bermatzeko eskualde bakoitzean hartutako neurriak, erromesaren esperientzia hobetzeko garatutako neurriak edota administrazio publikoen gerora begira abiarazi beharreko xedapen berriak.

Mugaz haraindiko lankidetzaz, ondasuna osatzen duten osagai garrantzitsuenen hautaketa eta identifikazioa, munduko ondarearen erronkak eta bideen kudeaketa eta garapen irunkorrerako ikuspegiak izan dira urteurrena ospatzeko antolatu diren mahainguru eta hitzaldietako aztergai nagusiak, eta horien bukaeran, kontzertua eta paseo musikala egin da Baxenabarreko hiriburuan barna.

### **Donejakue Bidea, Nafarroa *marka gisa***

UNESCOko munduko ondareari buruzko batzordeak Donejakue Bideek Espainian eta Frantzian dituzten ondasunak zerrendatu zituen; lehenengoak 1993ko abenduaren 10ean Cartagenan (Kolonbia), eta bigarrenak, 1998ko abenduaren 2an Kyoton (Japonia). Nafarroan, Donejakue Bideak berariazko kultur segmentua du, eta gure Komunitateak nazioartean finkatuak dituen helmuga turistikoari loturiko bi marketako bat da.

Horren harira, 2018-2025eko Turismo Plan Estrategikoan, Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusian abian dituen zenbait jarduketa zehaztu dira Bidearen balioa indartzeko. Eskariaren profilari buruzko eta horren nahiei buruzko ezagutza hobetzea, erromesei zuzendutako informazioa nahiz irisgarritasun eta garraioari buruzkoa hobetzea, lotzeko eta fidelizatzeko ekimenak garatzea eta ibilbide motibazionaletan oinarritutako bidaia-proposamenak sustatzea dira jarduketa horietako batzuen xedak.